

BIZILAGUNTEGIA: ALDAMENEKO ERREZETAK

Ezagutzeko, partekatzeko eta (elkar)bizitzeko errezetak

BIZILAGUNARIO: LAS RECETAS DE AL LADO

Recetas para conocer, compartir y (con)vivir

MIXTURA

ARABA · BIZIKIDETZA ETA ANIZTASUNA
ÁLAVA · CONVIVENCIA Y DIVERSIDAD



«Azken finean, bizilagunak»

Osagaiak nahastu, eta konbinaketa egokia lortuta osagai bakoitzak bakarka duen zaporea eta kalitatea gainditzen duen plater paregabe bat sortzea; horixe da kozinatzearen magia. «Osotasuna bere osagaien batuketa baino gozoagoa da» printzipioa gastronomiari aplika diezaiokegu, baita kultura desberdinetako bizilagunen elkarbizitzari ere. Osagaiak eta pertsonak nahasten direnean, marinatzen direnean, su baxuan egosten direnean eta gero egonean utzi eta zerbitzatzen direnean, auzo eta herriek eltzea irekitzean, aniztasunaren balioa ezagutzen dute eta hura besarkatzen dute.

Metaforikoki eta literalki, horixe gertatu da Araban azken lau urteetan, Bizilagunak ekimenak antolatutako bazkarietan. 2019ko azaroaren 17an, adibidez, Araba osoan 46 nazionalitateko 1.082 pertsona elkartu ziren etxeetan eta txokoetan egindako kultur arteko 72 bazkaritan. Gogoratuko duzunez, Arabako Foru Aldundiak, CEAR Euskadik eta landa-eremuko zurrumurruen aurkako sareek elkarrekin antolatutako jarduera honen funtsa aurrez elkar ezagutzen ez duten kultura desberdinetako familiak binaka elkartzea da, elkarrekin igandeko bazkaria parteka zezaten, eta elkar ezagutuz adiskide egin zitezen.

Adiskidetasun hori sortu ondoren, aurten, 2020an, familiak berriz beste familia batekin nahastea pentsatzen hasiak ziren, baina pandemiaren eta osasun-krisiaren eraginez ez da aurrez aurreko bazkaririk egiteko aukerarik izan. Ondorioz, 1.082 pertsona horiek eta askoz gehiagok ere badakigu gaur-gaurkoz ezin dugula mahairik partekatu. Hala eta guztiz ere, gure burua berrasmatzen eta gure artean nahasten jarrai dezagun, ***«Bizilaguntegia: aldameneko errezetak»*** *sortu dugu, Bizilagunak ekimenari omenaldia egiteko eta gure herriko aniztasun kulturalak aberastu egiten gaituela, harro sentiarazten gaituela eta hura dastatzen jarraitu nahi dugula ospatzeko.*

Halaxe sortu dugu esku ugarik parte hartuta sortutako Bizilaguntegia errezetategia, zehazki Agurain, Amurrio, Araia, Artziniega, Arraia-Maeztu, Laudio eta Santikurutze Kanpezu herrietako bizilagunekin osatua. Errezeta honetako gozagarri berezia da hemen aurkeztuko dugun errezeta bakoitzaren atzean dagoen platera Bizilagunak ekimeneko bazkari bateko enkontru, istorio, begirada edo hurbilpen baten konplize izan zela iaz, edo aurreko urteetan.

Horrenbestez, zuregatik eta zurekin osatu dugu atal hau.

Hasierako platerretan Ghanako zuku egin berriaz, Panamako yuccaz, Pakistango pankoraz eta Ekuadorreko patakonez gozatzeko aukera izango duzu.

Janariari laguntzeko Arraia-Maeztuko ogi ekologikoa eta Errumaniako ogia dasta ditzakezu.

Bigarren platerretan, Nigeriako jollof arroza, País Valeciàko arròs negre, Amurrioko arroza haragiarekin eta Sahara Mendebaldeko kuskusa probatzeko aukera izango dugu.

Haragi-platerretan, Siriako kebbeh halabí, Santikurutze Kanpezuko oilaskoa laranjarekin eta Kubako txerri-puskak topatuko dituzu.

Arraina nahiago baduzu, gure plater izarra dastatzeko parada izango duzu: Aguraingo bakailaoa.

Eta postreetan, Amurrioko goxua eder batez eta Marokoko msemenaz gozatzeko aukera izango duzu.

Unamunok esaten zuen arrazakeria bidaiatuz sendatzen dela. Batzuetan bidaiatzea beste herrialde bateko norbaitekin mahaian esertzea besterik ez da. Orduan arrazakeria... janez sendatzen da.

Animatuko al zara sukaldaritza-bidai hau partekatzera?

Errezeta hauen eskutik, kultur aniztasunaren aldeko gure ahalegina berrasmatuko dugu; izan ere, edozer gertatuta ere guztiok jarraituko dugu Bizilagunak izaten.

IZAN BIZILAGUNA!

*"**Vecinas y vecinos, después de todo**"*

La magia de cocinar consiste en mezclar ingredientes que, una vez combinados, resultan en un plato único, el cual supera en sabor y calidad a cada ingrediente por separado. Este principio de que "el todo es mucho más rico que la mera suma de sus partes" es de aplicación a la gastronomía, y también a la convivencia entre vecinas y vecinos de diferentes culturas. Cuando la mezcla de ingredientes y de personas se produce, se marina, se cuece a fuego lento, se deja reposar y se sirve, los barrios y pueblos abren la cazuela, reconocen el valor de la diversidad y la abrazan.

Así ha ocurrido, metafórica y literalmente, en Araba en estos cuatro últimos años, en el marco de las llamadas Comidas Bizilagunak. El 17 de noviembre de 2019, por ejemplo, 1.082 personas procedentes de 46 nacionalidades diferentes se juntaron en 72 comidas interculturales celebradas en casas y txokos, a lo largo de todo el territorio alavés. Como recordarás, la actividad, coorganizada por la Diputación Foral de Álava, CEAR Euskadi y las redes de agentes antirrumores rurales, consistía en emparejar familias que no se conocían previamente entre sí y que procedían de culturas diferentes, para que se reuniesen en una comida de domingo, se conociesen, y entablasen amistad.

*Entablada la amistad, cuando este año 2020 las familias han comenzado a pensar en volverse a mezclar, la pandemia y la crisis sanitaria han impedido la organización de nuevas comidas presenciales. Como consecuencia, hoy esas 1.082 personas y muchas más sabemos que, de momento, no podemos compartir mesa ni mantel. Sin embargo, en nuestro deseo de reinventarnos y no dejar de mezclarnos, hemos ideado este "**Bizilagunario: el recetario de al lado**" para homenajear la iniciativa Bizilagunak y para seguir celebrando que la diversidad cultural de nuestro pueblo nos enriquece, nos orgullece y deseamos seguir degustándola.*

Es así que hemos creado este Bizilagunario, como recetario escrito a muchas manos: concretamente las de las vecinas y vecinos de Agurain, Amurrio, Araia, Artziniega, Arraia-Maeztu, Llodio y Santa Cruz de Campezo. El condimento especial lo aporta la anécdota de que cada plato cuya receta aquí presentamos fue cómplice de un encuentro, de una historia, de una mirada, de un acercamiento, de una comida Bizilagunak el año pasado, el anterior, o el anterior.

Va por tanto por ti, y contigo, esta selección que te proponemos.

Como entrantes podrás disfrutar de un zumo recién exprimido de Ghana, una yuca panameña, pákora de Pakistán y unos patacones de Ecuador.

Para acompañar la comida, puedes probar el pan ecológico de Arraia-Maeztu y el pan de Rumanía.

De segundo, degustaremos arroz jollof de Nigeria, arròs negre del Pais Valencià, arroz con carne recién hecho de Amurrio y un cous-cous del Sáhara Occidental.

Como platos de carne, encontrarás kebbeh halabí de Siria, un pollo a la naranja de Santa Cruz de Campezo y unas manitas de cerdo de Cuba.

Si eres más de pescado, podrás degustar nuestro plato estrella: bacalao de Agurain.

Y de postre, no dejes de disfrutar de un rico goxua de Amurrio y un msemen de Marruecos.

Decía Unamuno que el racismo se cura viajando. A veces viajar es tan fácil como sentarse a la mesa con una persona de un país distinto al tuyo. Entonces el racismo... el racismo se cura comiendo.

¿Te animas a compartir este viaje culinario?

Reinventemos, de mano de estas recetas, nuestro gesto a favor de la diversidad cultural, porque pese a todo, y después de todo, somos y seguiremos siendo Bizilagunak.

IZAN BIZILAGUNA!





Hasierakoak / Entrantes

7 *Hibisko-zukua (Ghana)*
Zumo de avispa-hibisco (Ghana)

8 *Gari-ogia (munduko sukaldaritza)*
Pan de trigo (Cocina del mundo)

9 *Ogi-opiltxoak (Errumania)*
Bollitos de pan (Rumanía)

Osagarriak eta hornigaiak
Guarniciones y acompañamientos

10 *Patakonak (Kuba)*
Patacones (Cuba)

11 *Yucca frijitua (Panama)*
Yuca frita (Panamá)

12 *Pakora (Pakistan)*
Pákora (Pakistán)

Arrozak eta kuskusa / Arroces y Cous cous

13 *Jollof arroza oilaskoarekin (Nigeria)*
Arroz jollof con pollo (Nigeria)

14 *Arròs negre orburuekin (País Valencià)*
Arròs negre con alcachofas (Pais Valencià)

16 *Haragi-paella (Euskal Herria)*
Paella de carne (Euskal Herria)

17 *Kuskusa (Iparraldeko Afrika. Sahara Mendebaldeko errezeta)*
Cous-cous (África del Norte. Receta del Sahara occidental)

Haragia / Carnes

19 *Kebbeh halabí (Siria)*
Kebbeh halabí (Siria)

20 *Oilaskoa laranjarekin (Euskal Herria)*
Pollo a la naranja (Euskal Herria)

21 *Txerri-puskak frijituta (Kuba)*
Masas de cerdo fritas (Cuba)

Arraina / Pescados

22 *Aguraingo bakailaoa (Euskal Herria)*
Bacalao de Agurain (Euskal Herria)

Postreak / Postres


23 *Msemen (Maroko)*
Msemen (Marruecos)

25 *Goxua (Euskal Herria)*
Goxua (Euskal Herria))


Residencia de la vecina *Tiempo de elaboración* *Número de comensales*

Asparrena (Arabako Lautadako kuadrilla)
Asparrena (Cuadrilla de Llanada Alavesa)
15 minutu / 15 minutos

HIBISKO-ZUKUA
ZUMO DE FLOR DE AVISPA-HIBISCO
Ghana



Rita Akua Owusu



Sartu nahasketa guztia eltzean eta eduki estalita 3 minutuz.
¿Te animas a compartir este viaje culinario con nosotras y nosotros?

1. *Bete eltzea urez eta berotu borborka hasten den arte. Llena la cazuela de agua y caliéntala hasta que burbujee.*



2. *Orduan, itzali sua. Cuando veas que esté burbujeando apaga el fuego.*



3. *Gehitu hibiskoa, zatitu anana eta jengibrea eta isuri irabiagailura piperbeltz beltzarekin eta zukututako limoiarekin batera. Añade la flor de avispa, corta la piña y el jengibre y échalas en la batidora con la pimienta negra y con el limón exprimido.*



4. *Sartu nahasketa guztia eltzean eta eduki estalita 3 minutuz. Añade toda la mezcla a la cazuela y tápalo durante 3 minutos.*



GARI-OGIA
PAN DE TRIGO

Munduko sukaldaritza / *Cocina del mundo*

Arraia-Maeztu (Arabako Mendialdea)
Arraia-Maeztu (Cuadrilla de Montaña-Alavesa)
6 ordu / 6 horas



Mendialdeko Ogia

Mahaiaren bueltako harreman gehienetan presente egon izan da ogia, eta horren adierazle da gaztelaniazko compañero hitzaren jatorria: ogia partekatzetik dator

La palabra compañero viene de compartir un mismo pan. Ojalá todos seamos cada día más compañeros.

ORE AMA EDO OKINDEGIKO IRIN FRESKOA - 120G / 10G
MASA MADRE O LEVADURA FRESCA PANADERO 120GRS / 10GRS

HARRIAN EHOTUTAKO GARI-IRIN EKOLOGIKO ERDI INTEGRALA - 560G
HARINA DE TRIGO SEMIINTEGRAL ECO MOLIDA A LA PIEDRA 560GRS

GATZA - 10G
SAL 10GRS

H2O - 420ML



1. *Ontzi handi batean ura (20-22°C inguruan) eta ore ama edo legamia nahastuko ditugu eta eragin egingo diogu, nahasketa homogeneoa lortu arte. Irina eta gatza gehituko dizkiogu, eta guztia bateratu arte eragingo diogu. Zapi garbi batez estalita, egonean utziko dugu ordu erdiz.*
Mezclamos en un bol grande el agua (a unos 20-22 C°) y la masa madre o la levadura y removemos hasta obtener una mezcla homogénea. Añadimos la harina y la sal y amasamos hasta integrarlo todo. Tapamos con un paño limpio y dejamos reposar media hora.



2. *Ondoren, bola bat osatuko dugu, zapi garbi batez estali tako ontzi batean jarriko dugu eta giro tenperaturan utziko dugu, bolumen bikoitza duen arte (bizpahiru ordu).*
Después formamos una bola, la colocamos en un bol tapado con un paño limpio y dejamos reposar a temperatura ambiente hasta que doble su volumen. (unas 2-3 horas)



3. *Irinez eta olioz igurtzitako gainazal baten gainean jarriko dugu orea, itsats ez dadin, eta ogiak izatea nahi dugun forma emango diogu. Guk bola forma emango diogu.*
Ponemos la masa sobre una mesa con un poco de harina o aceite para evitar que se pegue y damos la forma que queramos tenga el pan, por ejemplo una bola.

4. *Ore-bola irineztatutako edo olioztatutako ontzi batean jarriko dugu, itsats ez dadin. Okindegiko banettonerik baldin badaukazu, oraintxe duzu erabiltzeko aukera! Denbora izanez gero, gau guztian utziko dugu hozkailuan. Beste aukera bat da giro-tenperaturan ordu eta erdiz harrotzen uztea.*
Colocamos la bola de masa en un bol limpio enharinado o con aceite para que no se pegue. Si tienes un banettone de panadería ¡es el momento de usarlo! Si tenemos tiempo lo dejamos reposar toda la noche en nevera. Otra opción es dejarlo fermentar durante hora y media más a temperatura ambiente.




5. *Labea aurretik 220-240°C-tan berotuko dugu, eta haren behealdean ontzi erregogor bat edo laberako erretilu bat jarriko dugu, ogia sartzen dugunean lurruna sor dadin.*
Precalentamos el horno a 220-240°C y colocamos en la parte inferior del horno un recipiente refractario o una bandeja de horno para crear vapor a la hora de meter el pan.



6. *Ogia erretilu batean jarriko dugu, labe-orri baten gainean. Laban zorrotz bat erabiliz, zenbait mozketa egingo dizkiogu. Segidan, 200 g ur isuriko ditugu labeko ontzi erregogorrera, eta ogia daraman erretilua sartuko dugu labera.*
Colocamos el pan sobre una bandeja de horno con un papel de hornear. Hacemos uno o varios cortes en la superficie del pan con la ayuda de un cuchillo afilado. Vertemos inmediatamente unos 200 g de agua en el recipiente refractario del horno e introducimos la bandeja con el pan.



7. *30 minutu inguruz edukiko dugu labean.*
Horneamos unos 30 minutos.



8. *Tenperatura 180 °C-ra jaitsiko dugu, segundo batzuetan labea irekita utziko dugu lurruna irten dadin, eta beste 15 minutuz utziko dugu labean.*
Bajamos la temperatura a 180°C, abrimos unos segundos el horno para dejar salir el vapor y horneamos unos 15 minutos más.



9. *Parrila batean hozten utzi, xerratan moztu, eta has gaitezen gozatzen!*
Dejamos enfriar sobre una rejilla, cortamos en rebanadas ¡y disfrutamos!

OGI-OPILTXOAK
BOLLITOS DE PAN

Timisora (Errumania) / Timisora (Rumanía)

Asparrena (Arabako Lautadako kuadrilla)
Asparrena (Cuadrilla de Llanada Alavesa)

2 ordu / 2 horas



Violeta Serban

1 KG GARI-IRIN
1 KG DE HARINA DE TRIGO

GATZ PIXKA BAT
PIZCA DE SAL

UR EPELA - OREA EGITEKO BEHAR DEN KANTITATE JUSTUA
AGUA TEMPLADA - LA JUSTA PARA LA MASA

25 G LEGAMIA FRESKO
25 GR LEVADURA FRESCA

Osagaiak eta pertsonak nahasten direnean, marinatzen direnean, su baxuan egosten direnean eta gero egonean utzi eta zerbitzatzen direnean, auzo eta herriek eltzea irekitzean, aniztasunaren balioa ezagutzen dute eta hura besarkatzen dute.

Cuando la mezcla de ingredientes y de personas se produce, se marina, se cuece a fuego lento, se deja reposar y se sirve, los barrios y pueblos abren la cazuela, reconocen el valor de la diversidad y la abrazan.


1. *Osagai guztiak ontzi batean jarriko ditugu, eta ura botako diegu, oso pixkanaka, dena ondo nahas dadin.*
Ponemos todos los ingredientes en un bol, pero el agua despacio, primero un poco para que se mezcle todo bien. Añadir el resto del agua poco a poco para hacer la masa.




2. *Orea prest dagoenean, 3 koilarakada-txo olio gehituko dizkiogu eta nahastu egingo dugu.*
Cuando está la masa lista, le añadimos 3 cucharadas de aceite, y amasamos junto con el aceite.



3. *Behin guztia ondo nahasita, ordubetez trapu garbi batez estalita edukiko dugu.*
Cuando ya está todo bien amasado, con un trapo limpio encima tapar durante una hora.



4. *Labea aurrez berotuko dugu 30 minutuz 180 gradutara.*
Precalentar el horno durante 30 minutos a 180 grados.



5. *Orea jalkitzen utzi ondoren, 6 zatitan moztuko dugu labanaz, eta egindako puskekin bolatxoak egingo ditugu. Horretarako, mahai-gaina irin apur batez hautseztatuko dugu.*
Con la masa reposada, cortamos la masa en 6 partes con un cuchillo, con los pedazos formamos las bolitas con las manos encima de la mesa con un poco de harina.




6. *Erretilu batean labe-orri bat jarriko dugu, eta gainean, ogi-bolatxoak. Laberatu eta 20 edo 30 minutuz edukiko ditugu bertan.*
Colocar en la bandeja con papel del horno las bolas de pan, y hornear durante 20 o 30 minutos.



7. *Labetik ateratakoan, ogia eskuekin bustiko dugu, hura laztantzen ari bagina bezala.*
Cuando lo sacas del horno, mojar el pan con las manos como acariciándolo.



8. *Gero, berotan, berriz estaliko dugu trapu batez, eta hozten utziko dugu.*
Luego otra vez tapar con el trapo y dejar calentito, dejar enfriar.



Santikurutze Kanpezu (Arabako Mendialdea)
Santa Cruz de Campezo
(Cuadrilla de Montaña-Alavesa)

20 minutu / 20 minutos

PATAKONAK
PATACONES

Ekuador / Ecuador



Angelita

FRIJITZEKO OLIOA
ACEITE PARA FREÍR


GATZA
SAL

GAZTA FRESKOA, LAGUNTZEKO
QUESO FRESCO PARA ACOMPAÑAR


2 BANANA MUSA BALBISIANA
2 PLÁTANOS MACHOS

IZAN BIZILAGUNA!

1. *Bananak zuritu eta zatituko ditugu. Zatiak ez daitezela oso lodiak izan.*
Pelar los plátanos, cortar en trozos no muy gruesos.




2. *Olioa berotu eta banana zatiak frijituko ditugu.*
Calentamos el aceite y freímos.



3. *Zartagina sutatik kenduko dugu. Sukaldeko ohol batean, edalontzi batez banana zatiak zanpatuko ditugu.*
Retiramos del fuego y en una tabla de picar ayudados de un vaso, aplastamos los plátanos.



4. *Eta berriz botako ditugu zartaginera, kurruskari gera daitezen.*
Y volvemos a echarlos a la sartén para darles el toque crujiente.





5. *3 minuturen buruan, sutatik kenduko ditugu eta plater batean jarriko ditugu, gatza botako diegu eta gazta freskoarekin zerbitzatuko ditugu.*
Pasados unos 3 minutos, los retiramos y los ponemos en un plato, le añadimos sal y servimos con el queso fresco.

YUCCA FRIJITUA
YUCA FRITA

Panama / Panamá

Agurain (Arabako Lautadako kuadrilla)
Salvatierra-Agurain (Cuadrilla de Llanada Alavesa)

20 minutu / 20 minutos



María Teresa Quintero Ríos



Zure etxeko ateak irekitzea da egin daitekeen keinurik handiena.
Abrir las puertas de tu casa es lo más grande que hay.

1. *Yucca gutxi gorabehera 4 zentimetroko puskatan zatitu.*
Partir la yuca en trozos de aproximadamente 4 centímetros.



2. *Yucca zuritu; horretarako, eman kolpetxo bat azalari, azala tuberkulutik bereizteko.*
Pelar la yuca, dándole un pequeño golpe con un cuchillo a la cáscara, para ir separando la cáscara del tubérculo.



3. *Zatitu puska txikitan.*
Partir en pequeños trozos.



4. *Egosi gutxi gorabehera 10 minutuz. Ez dadila bigun-biguna ere gelditu.*
Cocer durante unos 10 minutos, que no quede blanda del todo.



5. *Bota gatz pixka bat.*
Agregar un poco de sal



6. *Frijitu.*
Freír.



7. *Frijituta eta kurruskari daudenean, gehitu nahi beste gatz.*
Cuando ya están fritas y crujientes agregas un poquito de sal al gusto.

PAKORA

Gujarat Pakistán

Agurain (Arabako Lautadako kuadrilla)
Salvatierra-Agurain (Cuadrilla de Llanada Alavesa)

30 minutu / 30 minutos



Zaman Mohamed



Elkarbizitzak sortzen duen musika entzutea oztopatzen diguten zarata dira zurrumurruak.

Los rumores son el ruido que no nos deja escuchar la música que compone la convivencia.



2 PATATA ERTAIN
2 PATATAS MEDIANAS

MARTORRI ALEAK
CILANTRO EN GRANO



2 TOMATE
2 TOMATES



KANELA PIXKA BAT
UN POCO DE CANELA



TXITXIRIO-IRINA
HARINA DE GARBANZOS



OLIBA-OLIOA
ACEITE DE OLIVA



1 TIPULA ERTAIN
1 CEBOLLA MEDIANAS



GATZA, NAHIERAN
SAL AL GUSTO



KUMINO-ALEAK, OSO FIN IZAN GABE EHOTUTA
COMINO EN GRANO MOLIDO TOSCAMENTE



PIPERMINA, ZAPORE MINA GUSTATZEN BAZAIZU
GUINDILLA SI TE GUSTA PICANTE

ZIAZERBA ESKUKADA BAT
UN MANOJO DE ESPINACAS





GARAM MASALA

(INDIAKO SUKALDARITZAN ASKO ERABILTZEN DEN ESPEZIA-NAHASKETA BAT. GARAM MASALA IZENDAPENAK HITZEZ HITZ 'ESPEZIA-NAHASKETA')
(MEZCLA DE ESPECIAS MUY EMPLEADA EN LA COCINA INDIA, EL SIGNIFICADO LITERAL DE GARAM MASALA ES 'MEZCLA DE ESPECIAS')




PIPERBELTZ BELTZA EDO PIPERRAUTS MINA
PIMIENTA NEGRA O PIMENTÓN PICANTE



1. *Barazki guztiak tira finetan moztu.*
Cortar en tiras finas todas las verduras.




3. *Maneatu nahasketa, espeziak eta gatza nahieran gehituta. Nahastu ondo eta egiaztatu ea baduen nahikoa gatz.*
Aderezar con las especias y la sal según nuestro gusto. Remover bien y comprobar el punto de sazonamiento.



2. *Ontzi batean, nahastu osagai guztiak eta gehitu ur pixka batean disolbatutako irina. Kruxpetak egiteko moduko pasta arina lortu behar duzu. Ur gehiegi botatzen badiozu, txitxirio-irin pixka bat gehiago bota diezaiokezu.*
En un cuenco, mezclar todos los ingredientes y añadir la harina disuelta en un poco de agua. Nos tiene que quedar una pasta ligera como para buñuelos. Si te pasas de agua puedes añadir un poco de harina de garbanzo.



4. *Isuri olioa zartaginera, eta bero dagoenea n, bota nahasketa koilaraz edo eskuz. Opilaren behealdea txigortu denean, emaiozu buelta. Beste aldea ere txigortzen denean, atera zartaginetik.*
Poner aceite en una sartén y cuando esté caliente, ir echando la mezcla a cucharadas o con la mano. Cuando la parte de abajo de la tortita esté dorada, darle la vuelta y sacar cuando se haya dorado también la otra parte.



5. *Utzi sukaldeko paperez estalitako plater batean, hark soberan duen olioa xurga dezan.*
Dejar en un plato con papel de cocina para que absorba el aceite sobrante.



6. *Bero daudela jatekoak dira. Chutney erako edo jogurt saltsa batek lagunduta ere jan daitezke.*
Se comen calientes. Se pueden acompañar de una salsa tipo chutney o de yogurt.

Laudio (Aiaraldea)
Llodio (Cuadrilla de Ayala)

50 minutu / 50 minutos

JOLLOF ARROZA OILASKOAREKIN
ARROZ JOLLOF CON POLLO

Nigeria



Kate Osamwonyi

KILO BAT OILASKO
UN KILO DE POLLO

JENGIBREA
JENGIBRE

GATZA
SAL

500 GRAMO ARROZ
500 GRAMOS DE ARROZ

BARATXURI-HAUTSA
AJO EN POLVO

PIKANTEA
PICANTE

2 TIPULA
2 CEBOLLAS

3 TOMATE
3 TOMATES

OILASKO-SALDA TABLETAK
TABLETAS DE CALDO DE POLLO

CURRYA
CURRY

PIPER GORRIA
PIMIENTO ROJO

PIPER GOZOA
PIMIENTO DULCE

OLIOA
ACEITE

Gure seme-alabak etorkizuna dira; gaur ikasten dutenak markatuko du zer izango diren bihar. Hez ditzagun Bizilagunak programaren bidez.

Nuestras hijas e hijos son el futuro, lo que aprendan hoy marcará lo que serán mañana. Eduquemos en Bizilagunak.




1. *Saltsa:*
Lehengo, 3 tomateak, tipula, piper gorri bat eta pikante pixka bat sartuko ditugu irabiagailura.
La salsa:
Primero, metemos los 3 tomates, una cebolla, un pimiento rojo y un poco de picante en la batidora.



2. *Arroza:*
Arroz baporizatua ur beroz garbituko dugu.
El arroz:
Lavamos arroz vaporizado con agua caliente.



3. *Beste eltze batean, olio-zurrusta bat, gatz pixka bat, beste tipula bat (txikituta) eta lehen egin dugun saltsa nahastuko ditugu. 2 minutuz irakiten utziko dugu, eta tarteka nahastu egingo dugu erre ez dadin ziurtatzeko.*
En otra cacerola, vertemos un chorro de aceite, una pizca de sal, la otra cebolla picada, y la salsa que anteriormente hicimos. Lo dejamos hervir por 2 minutos, chequeándolo y removiéndolo para que no se queme.



4. *Gero, ur apur bat eta espeziak (baratxuria, jengibre, currya, oilasko-salda tabletak eta piper gozoa) gehituko dizkiogu, eta 5 minutuz irakiten utziko dugu.*
Luego, echamos un poco de agua y las especias (ajo, jengibre, curry, tabletas de caldo de pollo y pimiento dulce) y dejamos hervir por 5 minutos.



5. *Orduan, arroz garbitua gehituko diogu saltsa eta guzti, eta ura, arroz guztia estaltzeko moduan. Su ertainean kozinatuko dugu.*
Entonces, echamos el arroz lavado a la salsa, echamos agua hasta que cubra todo el arroz y lo dejamos a fuego medio.



6. *Oilaskoa.*
Oilaskoa labean egin daiteke, frijitu egin daiteke edo egosi. Nahi dituzun espeziak jar diezazkiokezu.
El pollo:
El pollo se puede hacer en el horno, freírlo o hervirlo. Para esto hay que echar especias a tu gusto.

ARRÓS NEGRE ORBURUEKIN
ARRÓS NEGRE CON ALCACHOFAS

Pais Valencià

Arraia-Maeztu (Arabako Mendialdea)
Arraia-Maeztu (Cuadrilla de Montaña-Alavesa)
Ordu eta 15 minutu / 1 hora y 15 minutos
65 zm-ko diametroko paella-ontzia, 8-10 lagun
Paellera de 65cm de diámetro, 8 a 10 comensales



Familia Di Bella Olmeda

- 3 TOMATE HELDU
  3 TOMATES MADUROS
- 1 KOILARAKADA PIPERRAUTS GOZO
  1 CUCHARADA DE PIMENTÓN DULCE
- 120 ML OLIBA OLIO BIRJINA ESTRA
  ACEITE DE OLIVA VIRGEN EXTRA 120 ML
- 4 ORBURU FRESKO
  4 ALCACHOFAS FRESCAS
- 1 KG TXIPIROI EDO SEPIA
  1 KG DE TXIPIRONES O DE SEPIA
- ARRAIN-SOBERAKINAK ARRAIN-ZOPA EGITEKO
  MORRALLA DE PESCADO PARA HACER UN CALDO DE PESCADO
- 4 POLTSATXO TXIPIROI-TINTA
  4 BOLSITAS DE TINTA DE CALAMAR
- 250 G GANBA
  250 GR DE GAMBAS
- 3 BARATXURI-ALE
  3 DIENTES DE AJO
- 1 KG ALE BIRIBILEKO ARROZ
  1 KG DE ARROZ REDONDO
- URA
  AGUA

Zure etxeko ateak irekitzea da egin daitekeen keinurik handiena
Abre las puertas de tu casa, abre las puertas de tu mente,
IZAN BIZILAGUNA


1. *Txipiroiak edo sepia puska txikitan zatituko ditugu. Orburuak zurituko ditugu eta zortzina puskatan zatituko ditugu. 3 tomate xehatuko ditugu eta gerorako gordeko ditugu.*
Cortamos los chipirones o la sepia en tacos pequeños, las alcachofas las pelamos y cortamos en 8 trozos cada una. Rallamos los 3 tomates y reservamos.




2. *Ganbak minutu batez egosiko ditugu. Ondoren, burua kenduko diegu, zuritu, eta gerorako edukiko ditugu.*
Un hervor de 1 minuto a las gambas, les quitamos las cabezas, las pelamos y las reservamos.



3. *Arrain-salda prestatuko dugu. Horretarako, 3 litro ur (ganbak egosteko erabilitako ura aprobetxatuz), merkatuko arrainaren hondakinak edo legatzaren edo itsas aingiraren buru eta hezurrak erabiliko ditugu. Ganben buruak erabiliko ditugu, lehenago pixka bat frijitu ondoren. 20 minutuz egosi eta gero, iragazi egingo ditugu. Gerorako gordeko dugu.*
Preparamos un caldo de pescado, 3 litros de agua (aprovechando el agua de la cocción de las gambas), moraya de pescado del mercado, o cabezas y espinas de merluza o congrio. Aprovechamos las cabezas de las gambas previamente, ligeramente sofritas. 20 minutos de cocción y colamos. Lo reservamos.



4. *Olioa botako dugu paella-ontzira, eta sua erdiko tenperaturan jarriko dugu. Bero dagoenean, txipiroi edo sepia zatiak gehituko dizkiogu. Txigortzen hasi eta 5 minutura orburu puskak gehituko dizkiogu, buelta batzuk emango dizkiogu eta xehatutako tomatea gehituko dugu. Hortik pixka batera, xerratan moztutako baratxuria gehituko diogu.*
Echamos el aceite en la paellera, fuego medio, cuando está caliente echamos los chipirones o la sepia troceados. A los 5 minutos cuando empieza a dorarse echamos la alcachofa troceada, unas vueltas y echamos el tomate rallado; al poco, los ajos cortados en lonchas.



Oharra: Ez bada orburuen sasoia, ez da orbururik gehitzen eta kito.
Observación: Si no es temporada de alcachofas frescas, no se echan y tan contentas.

ARRÓS NEGRE ORBURUEKIN
ARRÓS NEGRE CON ALCACHOFAS

País Valencià




9. *Arroz hau all i oli (baratxuriz eta olioz egindako saltsa) apur batekin zerbitzatu ohi da. Dakizuenez, all i oli errezeta tradizionala eskuz egiten da, motrailua erabiliz. Sarean aurki daitezke hori nola egin azaltzen duten bideotutorial txukunak. Bestela, haren ordez lasai erabil daiteke baratxuria duen maionesa. Este arroz se suele servir acompañado de un poco de All i oli (Ajo aceite) que como sabéis es una receta tradicional que se suele hacer a mano en el mortero. Hay buenos tutoriales en la red al respecto. También se puede sustituir, sin mucho, problema por una mayonesa con ajo.*




8. *Azken minutu horietan egon erne, sua igotzeko edo jaisteko; helburua salda guztia lurruntzea eta arroza lehortzea da, edota socarrat delakoa sortzea (ontziaren txapari itsatsitako geruza fina, arroza txigortzen edo pixka bat itsasten hasten denean sortzen dena). Sua itzali, eta utzi egonean 5 edo 10 minutuz. En esos últimos minutos estar al tanto para subir o bajar más el fuego de forma que se consuma todo el caldo, se seque el arroz e incluso nos haga un poco de Socarrat (película fina pegada a la chapa del recipiente que empieza a tostarse o pegarse ligeramente). Apagar y dejar reposar durante 5 minutos.*



